

EKOIZLEAK/PRODUCEN

dantzaz

eragin

fleischmann's
cooking
group

fcooking.es

HARRI
ORRI
AQUA



HARRI, ORRI, AR

Ekoizleak:

dantzaz


eragin

**fleischmann's
cooking
group**
fcooking.es

Dirulaguntzaileak:

 Gipuzkoako Fera Aldundia
Objektiboen Fera de Gipuzkoako

Laguntzaileak:

 dantza
gunea

 **PERiFERIA**

 **elxe
parte**

 **Euzko Murrastza**
Gipuzkoako Murrastza
Bilakaeraren Erakundeak
Bilakaeraren Erakundeak

 **malandain**
ballet | biarritz

 **SINDOALES**

 **ARRIOLA**

 **inaem**



HARRI, **ORRI,** AR

ATREZZO JANGARRIA, MARIACHIEN
MUSIKA, ZIRKU GARAIKIDEAREN KUTSUA,
MUGIMENDUAREN ENERGIA ETA
FISIKOTASUNA... GUZTIAK DU LEKUA
DANTZAZ-EN AZKEN EKOIZPEN HONETAN.
OBRA HONEK GOGORA EKARTZEN DIGUNEZ,
HAURREN JOLAS TRADIZIONALAK BEZALA,
**HAUSKORTASUNAK (PAPERAK
IRUDIKATUA) GARAITU EGIN DEZAKE
INDARRA (HARRIA).**

01

IKUSKIZUNA



Dantzaz konpainiak bere ikuskizun berria aurkezten du. Oso bestelakoak diren hiru piezaz osatua, Les Vikings konpainiak eta Jorge Jauregui eta Paolo Mohovich koreografoek sortutako lan honek Enrique Fleischmann sukaldariaren lankidetzaz izan du gainera.

‘Harri, Orri, Ar’ (‘Piedra, papel o tijera’, gaztelaniaz) da Dantzaz-en azken ekoizpenaren izena. Jolasa aldarrikatzen duen lana, ikuslearen irudimenera zabalik dagoen sormenaren lurraldea irudikatzen duena. Nola txertatu dantzan gastronomia eta dastamena? Nola esan den-dena segundo bateko isilune batean? Nola utzi gure gorputzak eta bere mugimenduak mugimendu koral askoz ere zabalago baten osagai izaten? Jakin nahi baduzu, zatorz Dantzaz ikustera.

Nazioarteko dantzarien harrobi heterogeneo bezain joria osatzen duen euskal konpainia hau dugu etiketa ohikoenei berriro ihes egiten dien ikuskizun honen egilea. Obra honetan lekua dute atrezzo jangarriak, mariachien musikak, zirkuko osagaiek eta mugimenduaren energiak eta fisikotasunak, haurren jolas tradizionalen bezala, gogora ekarriz hauskortasunak (paperak) zenbaitetan garaitu egiten duela indarra (harria).

Sara Olmo sortzaileak eta Victor Launay frantsesak –Les Vikings konpainiako kideak– osatzen duten duoak koreografiatzen du hiru piezetatik lehena ‘Historia de un segundo’ izeneko eszenan. Eszena horrekin, elkarrizketa batean barneratzea proposatzen digute. Gutako edozeinek izan geneza-keen elkarrizketa.

Zenbat gauzatan egon gaitzke pentsatzen segundo bakar batean? Ideia horietatik zenbat adierazi ditzakegu hitzetan? Gogoeta horiek inspiratzen dute Europako zirkurik garaikideenaren giroa birsortzen duen pieza.

Dantzaz-en obretatik bigarrenak, ‘Complete Surrender’, bokazio garaikidea du, nahita. Jorge Jaureguik, bere sortzaileak, norbanakoaren eta taldearen arteko mugako leku horretara hurbiltzea du asmoz. Helburu hori lortzeko taxutzen duen koreografian, dantzarien gorputzek talka egiten dute eta elkarlotu egiten dira aldizka oreka puntu konplikatua bat bilatzeko.

Eta azkenik, Jaureguiren sorkuntza definitzen duten energiak eta intentsitateak oso proposamen berezi bati ematen diote bide, Enrique Fleischmann mexikarraren konplizitatea tartean dela. Euskadin bizi den sukaldari saridunak ‘Harri, Orri, Ar’-en “atrezzo jangarri” berezi bat landu du: muntaia honi azkena emateko, bai harriek bai paperek ikusleek dastatu ahal izango dituzten sukaldaritzako plater originalen testura eta zaporea hartzen dituzte. Paolo Mohovich koreografo italiarrak seduzitzera eta seduzituak izatera gonbidatzen gaituen epilogoak, alegia.

n2 KONPAINIA



Nazionalitate ezberdinetako hamabi dantzariak osatezen dute konpainia. Bertan Nazioarteko Sormen Koreografikorako Zentroa dago, koreografo berriak eta oso ezagunentzako egonaldi artistikoak urtero eskeiniz.

Bekoizpen-zentroa, sormen-laborategia eta dantza-konpainia. Hauek dira Dantzaz definitzen duten ezaugarriak. Lehen urratsak 2007an eman zituen mugimenduaren artean esparruan plataforma aitzindaria da Dantzaz. Orduz geroztik, **89 dantzari osatu dute talde gazte honen azken urteetako historia. Horietako askok gaur egun Ballet National de Marseille, Ballet de Núremberg, Scottish Ballet edo Iceland Dance Company bezalako nazioarteko konpainia onenetan dihardute.**

Sormen-etxe baten moduan egituratua, urtero nazioarteko koreografo ezagunak (Eric Gauthier, Hilde Koch edo Jacek Przybylowicz, besteak beste) eta dantzaren inguruko izen berriak gonbidatzen dituzte, espreski konpainiarentzat pieza laburrak prestatzeko. 2013. eta 2015. urteen artean bakarrik, Dantzaz konpainiak 66 sorkuntza prestatu zituen. Kopuru horrek konpainiak duen indar izugarria erakusten du. Pieza horietako batzuek "Kameleonia" (Galili-ren eta Przybylowicz-en piezekin), "Flash!" (berriro ere Galili-ren eta Przybylowicz-en koreografiak biltzen zituen) edo "Aureo" (Timulak-ek, Galili-k, Hassid-ek, San Martin-ek eta Argoaniz-ek sinatzen zituzten lanekin) bezalako ekoizpenen parte izan dira. Dantzaz nazioarteko dantzaren balio berrientzako to-

pagunea ere bada. Urtero, euskal plataformak 12 egoiliar artistiko hartzen ditu. Bertan nazioarteko sei sortzaile eta bertako beste sei biltzen ditu. Sarean antolatutako laborategiko eta laneko formula honek, gainera, Dantzagunea, Donostia Kultura, Tabakalera, Azkuna Zentroa eta CCN Malandain- Biarritz bezalako euskal espazio eszenikoek eta erakundeek eskaintzen duten laguntza jasotzen du.

Bere sorreratik, Dantzaz nazioarteko proiektuak sustatzearen eta garatzearen aldeko apustua egin du. Horren adibide dira hainbat ekitaldi eta arte-ekimenekin –adibidez, Concours Choreographique Contemporaine Jeunes Compagnies "Les Synodales-Sens" (Frantzia), eta Internationales Solo Tanz Theater Festival Stuttgart (Alemanian)– gaur egun sinatuta dituen lankidetzak-hitzarmenak. Halaber, Korzo (Holanda), Piemonte dal Vivo (Italia) eta DanceBase (Erresuma Batua) bezalako Europako hainbat dantza-etxerekin eta sorkuntza-zentrotarekin batera lanean dihardu. 2007. urteaz geroztik, konpainiak besteak beste Espainian, Frantzia, Italia, Alemanian, Polonian, Danimarkan, Txekiar Errepublikan, Suitzan edo Aljerian eskainitako laurhun emanaldi baino gehiagotara 250.000 ikusle baino gehiago hurbildu dira.

nr SORTZAILEAK



Dantzaz berriro inguratu da nazioarteko proiektio nabarienetakoa duten koreografoetako batzuez: Les Vikings(Sara Olmo eta Victor Launay) duoa, Jorge Jauregui euskal sortzailea eta Paolo Mohovich italiarra.

Les Vikings

Les Vikings duoa, Belgikan ezarria eta Sara Olmok eta Victor Launay sortzaile frantsesak osatua, 2014ko urtarrilean eratu zen. Batera egin zuten lehenengo proiektua 'Embrace' izan zen, eta ondoren 'Ceguera' pieza, José Saramagoren liburu homonimoan inspiratua. 2015ean, Les Vikings-ek 'Bajo los árboles' aurkeztu zuten, Ernest Hemingwayren 'Más allá del río y bajo los árboles' nobelan inspiratua; bost dantzari-entzako pieza, Balletto di Siena-ren eskariz sortua.

Les Vikings-en ibilbide profesionala bi nortasun desberdin elkar hartzearen emaitza da. Sara Olmok, dantza klasikoan prestatuak 'Mariemma' Errege Dantza Kontserbatorioan eta dantza garaikidean Madrilgo 'María de Ávila' Goi Mailako Dantza Kontserbatorioan, ibilbide sendoa egina du talde desberdinetan -'LaMov' edo 'Cáucaso Argonautas' konpainia- eta izen handiko sortzaileekin batera -Goyo Montero, Mónica Runde, Teresa Nieto edo Carmen Werner-. Gainera, zirku-arte eta dagozkion teknikak integratzen dihardu bere koreografiatan. Les Vikings-eko bere bidailagunak, Victor Launay frantsesak, Boulogneko CNR ikasi zuen eta Akitaniako Gazte Balletko kide izan zen 2003 eta 2005 urte bitartean.



2007az geroztik, erregularitasunez lan egin zuen CNC Nantes-ekin Claude Brumachon konpainian eta lankidetzan aritu zen, besteren artean, ondokoekin: Christophe García, Flora Théfaine, Stephanie Thiersch, Christian Bourigault.

'Histoire d'une seconde'-k, euren azkeneko ekoizpenak, Les Vikings-en egiten ari diren ibilbide bikainari jarraitzen dio: oso proiektu pertsonala, sari nagusi ugari jaso izan dituena, besteak beste, Burgos-New York 2014 Nazioarteko Koreografia Lehiaketaren lehen saria euren 'L'aveuglement' piezogatik, edo 'Jeunes Compagnies-Les Synodales' 19. Nazioarteko Koreografia Lehiaketaren bigarren saria, euren 'Etreinte' obragatik.

Jorge Jauregui Allúe

1997an hasi zen dantzan Euskal Herrian. Talde eta konpainia desberdinekin lan egin izan du Euskadin eta Bartzelonan (Damián Muñoz) Bruselara joan aurretik 'Última Vez/Wim Vandekeybus'-ekin lan egitera, 2004-2008 urteetan. 2009ko udazkenean, Lieve Meeussen-ekin batera, 'Nachtevening' sortu eta interpretatu zuen, Inne Gorisy-k zuzendua eta LODek ekoiztua (Gent, Belgika). Jorge Jaureguik erregulartasunez ematen ditu tailerrak, 'Última



Vez/Wim Vande- keybus'-eko hiztegi fisiko eta koreografikoan oinarrituta. 2009an 'Ember' plataforma artistikoa eratu zuen Laura Arís-ekin batera dantzaren munduan

ahots propio bat lantzeko asmoz. Harrez geroztik, hainbat artistarekin ari da lankidetzan eta euren lanak nazioartean erakusten dira. Batera sortu dute 'La Era de Los Cosmonautas' duetoa, pieza laburra, kaleko dantzaldietarako eta formatu txikiko aretoetarako nagusiki sortua, eta 2009an El Barco Kontserbatorioko Nazioarteko Kontaktu programan parte hartu zuten, Costa Ricako Dantza Tailer Nazionalean, non 'Surprised by Joy' ikuskizuna zuzendu duten hogeita lau dantzarirentzat. 2010eko azaroan, ikuskizun berri bat estreinatu zuten, 'Impostura', Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak subentzionatua.


Proiektu horretarako Luciana Carlevaro (Nubla) kantari/konpositorearekin lankidetzan ari dira. Arís-ekin batera, ikuskizunak sortzera gonbidatu dute ZPArentzat (Agrebacki Plesni Ansamb) Zagreben (Kroazia), Dantzas-entzat (Euskal Herria) eta Hong Kong Academy for Performing Arts-entzat 2011-2012 urtean zehar.

Paolo Mohovich

Turinen (Italia) hasi zituen dantza ikasketak (Italia) Sara Acquarone-rekin, eta geroago Cannescon Rosella Hightower, José Ferrán eta Edward Cook irakasleekin. Habanan eta Londresko Danceworks-en osatu zuen bere prestakuntza. Dantzari profesional gisa, Italian egiten du lan Florentziako 'Balletto di Toscana'-rekin,

Cristina Bozzolini-ren zuzendaritzapean, 'Ballet de Víctor Ullate'-n eta Zaragozako Balletean, Mauro Galindoren zuzendaritzapean. Konpainia horietan, koreografo ugarien erreperatorioa interpretatzen du: Uwe Sholtz, Williams Forsythe, Nacho Duato, Hans van Manen, besteak beste. 1994an hasi zuen bere karrera koreografo gisa, Zaragozako Balleteko kide batzuekin elkarlanean, eta bi aldiz (1995ean eta 1997an) irabazi zuen Parisko 'Prix Volinine' koreografia saria. 1999an 'Balletto dell'Esperia' eratu zuen, Valentziako Komunitateko Koreografia Zentroko lehenengo konpainia egoiliarra. 2001ean "Salerno Danza" Italiako Koreografia Saria lortu zuen, Italiako konpainia sortuberri onenari emana. 'Balletto dell'Esperia'-k aberastu egin du bere erreperatorioa ondokoen obrekin: Jacopo

Godani, William Forsythe, Gustavo Ramírez Sansano, Eugenio Scigliano, besteak beste; eta Italia ordezkatu izan du Zaragozako Expo 2008an, Istanbul Kulturaren Hiriburua 2011n, eta egin izan dituen hainbat biratan, herrialde hauetan: Frantzia, Espainia, Txipre, Estatu Batuak, Argentina, Brasil eta Peru. 2010ean, Italiako urteko dantza ikuskizun onenaren 'Danza&Danza' saria jaso zuen konpainiak, 'Tríptico 1900' obragatik. Koreografiak sortu izan ditu



'Balletto di Toscana'-rentzat eta Zaragozako Balletarentzat, eta 2012a arte bere lana ia osorik konpainian oinarritu badu ere,

Estatu Batuetan sortu izan ditu koreografiak Miami "Maximum Dance Company"-rentzat eta 'Miami Contemporary Dance Company'-rentzat, baita beste hauentzat ere: 'Maggio-danza' (Florentziako Operako Balleta), 'Agorà Coaching Project' (Reggio Emilia), Centro Dramático de Aragón, 'Dantzaz Konpainia' (Gipuzkoa), Ballet de la Generalitat (Valentzia) eta duela gutxi 'Tulsa Ballet' (AEB). 2012an, kritikaren saria lortu zuen, 'Short Time'-eko koreografo italiar onenari emana, 'DUO II' piezagatik. 2007az geroztik Turineko 'Palcoscenico Danza' dantzaldiaren zuzendari artistikoa da.

Enrique Fleischmann

Enrique Fleischmann-ek 1998-an hasi zituen bere sukaldaritzako ikasketak, New Yorkeko Culinary Institute of America-n. Ondoren, ozeanoa zeharkatu zuen Aiala Ostalaritza Eskolaren European Sukaldaritzari buruzko masterra egiteko. Iñaki Agirre, Karlos Arguiñano, Juan Mari Arzak edo Paul Bocuse-ekin lan egin ondoren, eta Pedro Subijana-aren Akelarre jatetxeko sukaldean "Bigarrena" izan ondoren (I+G+B de-

partamentuan), Fleischmann-ek bere ibilbide berriari ekin dio.

Enrique Fleischmann eta Maialen Gereka, bere emazteak, Getarian kokatuta dagoen Txoko Getaria Jatetxearen belaunaldi aldaketa zuzentzeaz arduratu dira. Txoko Getaria, familiarreko jatetxe bat da, betikoa, eta produktua, zaporea eta tradizioa errespetatuz, gaur-eguneratutako gastronomia bat eskeintzen du.

Aldi berean, Gipuzkoako Bidaniako Hotel Iriarte Jauregian bigarren egitasmo kulinarioa martxan jarri du: Bailara Restaurant. Berrikuntza, abangoardia eta zaporea, ingurune liluragarri batean. Lehen urte hauetan egindako lanak fruituak dakartza eta izendapen ezberdinak jaso ditu, besteak beste, Madrid Fusión-en, "Premio al Cocinero Revelación 2014" eta 2016an, "Urteko Jatetxe Onena" "Más Gastronomía" sarieretan. Horrela sortu da Fleischmann's Cooking Group. Bi jatetxez gain, sukaldaritzaren lan ildo ezberdinak jorrotzen ditu, besteak beste, aholkularitza gastronomikoaz arduratzen dira. Lan eremu honi dagokionez, 2014-tik, Enrique Fleischmann Azkoitiako Sammic enpresaren "Chef Korporatiboa" da. Era beraen, Basque Culinary Centerreko irakaslea ere bada.



n4 SORMENAK



HISTORIA DE UN SEGUNDO (SEGUNDO BATEKO ISTORIOA)

Les Vikings
(Sara Olmo y Victor Launay)



COMPLETE SURRENDER

Jorge Jauregui



HARRI, ORRI, AR (PIEDRA, PAPEL, TIJERA)

Paolo Mohovich



HISTORIA DE UN SEGUNDO

('Segundo bateko istoria')

Les Vikings (Sara Olmo y Victor Launay)



Les Vikings-ek, Belgikan ezarritako duo hispano-frantsesak, Dantzaz-erako euren lehengo pieza sortu dute, 'Historia de un segundo', Europako zirku berri garaikideak Sara Olmoren eta Victor Launayren planteamendu koreografikoan duen eraginaren erakusgarri.

'Historia de un segundo' piezak mugimenduan jartzen du elkarrizketa baten garapena. Edozein solasaldi edo elkarrizketa, gutako edozeinek eduki edo birsortu dezakeguna. Zenbat gauzatan egon gaitzake pentsatzen edo gogoeta egiten segundo bakar batean? Ideia horietatik zenbat adierazten ditugu azkenean hitzetan? Erantzun bat eman aurreko isilunea, oraindik ezer esan ez dugunean edo ideiak, nahiak eta zalantzak hitzetan irteten saiatzen direnean, eszenatokira igotzen dira koreografia batean, galdera-joko bat ere osatzen duen koreografia batean. Zer gerta daiteke segundo batean?

Les Vikings, Sara Olmo koreografoak eta Victor Launay frantsesak osatutako duoa dira 'Historia de un segundo' obraren egileak, 2017an Dantzaz-ek programatutako egonaldi artistikoen egitarauan parte hartu izanaren emaitza izanik, kontuan hartuta bertako kide direla 2015ean 'Dantza Saria' lortu ondoren, euskal konpainiak eta Malandain-Biarritz Koreografia Zentro Nazionalak sustatua, Sens-eko (Frantzia) Concours Choreographique Jeunes Compagnies 'Les Synodales'-en markoan.

Olmoren eta Launayren lanak elkartu egiten ditu dantzaren testura eta zirku garaikidearen teknikak



eta giroa, non akrobaziek eta akordeoiaren sonoritategi ere lekua baituten.

Koreografia: **Les Vikings (Sara Olmo eta Victor Launay)**

Musika: **Amestoy Trio**

Jantziak: **Les Vikings**

Argiak: **Les Vikings eta Alberto Arizaga**

Iraunaldia: **15 minutu**

COMPLETE SURRENDER

(‘Gorputzek mugimenduan duten ahalmen itsaskorra’)

Jorge Jauregui



Jorge Jauregui koreografoak lan koral bat sortu du, zortzi interpretarentzat, non norbanakoaren eta taldearen arteko orekaren mugako eremu horretara hurbiltzen baiten. Obra zeharo garaikidea eta fisikoa.

Mugimendua, azpimarratu du Jorge Jauregui, ekintza fisikoen multzo gisa har daiteke. Nolabait esateko, gutako bakoitzaren ekintza indibidualetatik abiatuta gizartea interpretatu ahal izango balitz bezala. Garrantzitsua hau da, dio, zer egiten duzun definitzea eta nola exekutatzen duzun, mugaraino jarraitzea edo zure burua errendiziorik absolutuenean erortzen uztera. Oreak kontu bat ia. Eta, hain zuzen ere, oreken mugako eremu ho-

rretan mugitzen da ‘Complete Surrender’, Jauregui Dantzaz-eko dantzariarentzat koreografiatu duen pieza.

‘Complete Surrender’ pieza garaikidea da, nahita. Taldearen mugimendua egituratu eta eraikitzen den modua ikusleari helarazten diona, banako bakoitzaren indar eragilea baliatuz.

Energia agorrezineko hiztegi fisiko horretan inspiratuta, dantzarien gorputzek talka egiten dute eta elkarlotu egiten dira txandaka oreka puntu bat bilatzeko, gizarte garaikidearen metafora hori irudikatuz.

Energia horren aurrean, ordea, obraren zati korallenen bizitasunak edo indarrak, ezertasunak eta atsedenak bizitza hartzen dute. Beharbada, azaldu du Jauregui, “gorputzek mugimenduan duten ahalmen itsaskor horretatik” geure buruak babesteko saio batean.



Koreografia: Jorge Jauregui
Musika: Borja Ramos, Mark Pritchard eta Badmarsh & Shri
Jantziak: Jorge Jauregui
Argiak: Jorge Jauregui eta Alberto Arizaga
Iraunaldia: 23 minutu

HARRI, ORRI, AR

(Piedra, papel, tijera)

Paolo Mohovich



‘Harri, Orri, Ar’ laborategi-proiektu gisa sortu zen Black Box Theatre-arentzat (Holstebro-Danimarka), dantza dastatzera proposatzen digun pieza, Enrique Fleischmann izen handiko sukaldari mexikarrak diseinatutako “atrezzo jangarriaren” bitartez.

‘Harri, Orri, Ar’ (piedra, papel, tijera, gaztelaniaz) joko simple bat da, baina unibertsala, antzinako tradizioan sustraitua. Elementuak bata bestearen gainetik gailentzen dira; indarrak eraginda ez, ordea, forman baitatza ahalmena. Papera harria baino hauskorragoa da, eta, hala ere, garaitu egiten du harria biltzeko duen ahalmenagatik.

Arau hori bera eta dagozkin ñabarduretako bakoitza giza harremanetara eta harreman afektiboetara eraman daitezke. Maite jolasa, sedukzioa, edo liluramendua ere jolas bat dira, indar fisikotik at. Paolo Mohovich koreografo italiarra, Balletto dell’Esperia-ren alma materra, haurren jolas tradizional honetan inspiratu da sedukzio, atrakzio edo kontaktu dinamikak aletzen dituen lan hau eszenaratzeko, oso espazio estetiko berezi batera egokituz. Euskadin bizi den izen handiko sukaldari mexikarra, Enrique Fleischmann, da obraren “atrezzo jangarriaren” egilea. Lankidetzaren bitartez, Fleischmann-en Cooking Group ttaldeak piezan dastamena txertatzea lortu du. Paper eta harri jangarriek lekua dute unibertso poliedriko honetan, non dantzak zentzu gehigarri bat hartzen baituen, dastamenarena, alegia.

‘Harri, Orri, Ar’ laborategi-proiektu gisa sortu zen Black Box Theatre-arentzat (Holstebro-Danimarka), eta bertan aurrestreinatu zen joan den urrian. Au-



dientziei eta dantzari buruzko nazioarteko kongresu baten kartelean programatua, bertan aurkeztu zuten koreografia, dastamenaz eta testura jangarriez gain, dantzaren ñabardura etnikoak, bere sustrai oinarrikoenak eta dituen aukera amaigabeak (sedukzioaren eta elkartzearen jokoa, esaterako) aldarrikatzen dituenak.

Soinuzko espazioak –piezaren beste erakargarritasun nagusietako bat– Pa Ta Ka-k garatutako lana eta Lucha Reyes-en ahotsa baliatzen ditu. Eta postreerako, oso eskaintza berezia ikusleentzat, gonbidatuta bai-kaude Fleischmannek sortutako “osagai jangarriak” dastatzera.

Koreografia: Paolo Mohovich
Sukaldaritza kontzeptuak: Enrique Fleischmann
Musika: Pa Ta Ka, Severiano Briseño, Manuel Esperón/Ernesto Cortazar, Gilberto Parra
Jantziak: Paolo Mohovich, Marina Bestard
Argiak: Paolo Mohovich, Alberto Arizaga
Iraunaldia: 20 minutu



“Proiektu hau, berrikuntzak sortzen digun plazerrak eraginda sortu da. Proiektu honetan, chef-a eta koreografoa, puntu komun batean elkartu dira, eta bertan, bakoitzak bere ideiak adierazi eta elkarren artean uztartu dituzte modu original batean”.

Pieza honetan abangoardiako sukaldaritza, berrikuntza eta dantza uztartzen dira, eta uztartze horri esker, gastronomiak dituen forma eszeniko ezberdinak sortu dira. Jesús Mena, Nahuel Pazos, Jesús Viejo eta Enrique Fleischmann, Bailara Restaurant-eko artisauek egindako harri eta paper jangarriak, indarraren eta hauskortasunaren arteko metaforaren elementu nahitaezkoak bihurtu dira.

Elementu hauek, euskal sukaldaritzan oso sustraiturik dauden osagarriez egindakoak dira, “pikillo” piperrak edo txibien tinta besteak beste. Simpleak bezain malguak, eta “arruntak bezain apartak”. Mohovichek egindako koreografiaren estetikan eta diskurtsoan, zapore horiek integratzea zen “Harri, Orri, Ar”-ek zuten erronka, piezaren narratiba koreografiakoaren luzapen bat balitz bezala.



“Bai paperak, eta bai harri jangarriak -Fleischmann Cooking Group-en arduradunek diotenez- abangoardiako sukaldaritzan ohikoak dira orain dela urte batzuetatik hona, baina garrantzitsuena, dantza garaikideko performance batean nola uztartu litekeen ikustea izan da”. Lana ez da bere horretan gelditzen. Emanaldia bukatu eta gero, ikusleek sormen gastronomiko horiek dastatzeko aukera izango baitute.

Osagarriak: Txibiaren tinta eta “Pikillo” Piperrak, besteak beste

Cooking concepts: Enrique Fleischmann, Jesús Mena, Nahuel Pazos eta Jesús Viejo

DANTZAZ

Pelotari kalea, z/g
20100 ERRETERIA-GIPUZKOA
(Dantzagunea)

www.dantzaz.net

943-021136

dantzaz@dantzaz.net